



IBAI TREBIÑO

## “Welcome to Damascus!”

Ibai Trebiño

@errusiarzalea

Damaskoko erdigunetik buelta bat emanda, inork gutxi imajinatuko luke Siriako gerraren zentroan gaudela; hiri lasaia da Damasko, eta hemen, soilik armadaren *checkpoint*-ek zein matxinoen kontrolpean dauden auzoetatik jauzten diren suziri eta morteroek apurtzen dute hiriarren bizitza.

Bost miloi pertsona bizi dira Siriako hiriburuan, eta turismoaz eta merkataritzaz bizi dira gehienak. Gerrak utzitako azarnak begi-bistakoak diren arren, bizitza ia normala egiten da erdigunean, eta kaleak komertzioz, tabernaz eta diskotekaz beteta daude, harrigarria bada ere. Dena den, normaltasun horren atzean bizimodu latza ezkututzen da kasu gehienetan: gerraren ondorioz, siriarren bizi-baldintzek txarrera egin dute eta esaterako, hainbat produkturen salneurria hamar bider garestitu da, besteak beste frutak edo barazkiak. Gainera, lau urte daramatzate argindarrrik gabe Damaskoko etxe gehienetan. Egunean, 6 orduko argindarra baino ez dute eta taberna eta saltokietan sorgailuak erabiltzen dituzte, Damasko “girotzen” eta kutsatzen duen zarata jasangaitza eraginez.

Orain gainera, aste batzuetatik hona, uraren gabezia ere nabari da hirian eta UNICEFek muturrekotzat jo du egoera: Jihadisten kontrolpean dagoen Wadi Barada herrian izandako sabotaeiek hiribu-

ruaren ur iturri nagusia kaltetu du, bost milioi pertsona ur gabe utziz. Kioskoetan jada ezinezkoa da ur botilaren bat aurkitzea eta tabernetan uraren salneurriak gora egin du nabarmen. Siriako Gobernuak banatzen duen ur eskasari esker egiten zaio aurre krisi humanitarioari, baina ez da nahikoa.

Krisia desblokeatzeko elkarrizketak martxan jarri dituzten arren, matxinoek eta Gobernuak ez dute adostasunik lortu oraindik eta krisia luzerako izango dela dirudi. Halere, itxaropentsu agertzen dira herritar gehienak, batez ere Gobernuaren aldekoak. Wadi Barada indarraren bidez berreskuratzeko itxaropena agerian uzten dute gehienek. “Lau egun baino ez ditugu behar uraren krisia desblokeatzeko”, dio Gobernuaren aldeko gazte batek, baina sei egun pasa dira eta ur gabe jarraitzen du hiriak.

Egoera hobetuko den seinalerik ez da ikusten eta buruari galdera bera egiten diot behin eta berriz: nola demontre bizi daiteke horrela? Bestalde, zer pentsatuko lukete siriarrak Europako hiriburuetan Siriako gerraren kontura egiten diren argi-pizteak eta itzaltzeak ikusita? Hemen laguntza behar dute, ez karitatea, are gutxiago ‘performance’ lazgarriak.

Baina hau Siria da, eta Sirian, beste ‘kasta’ batekoak dira. “This is Damascus” errepikatzen digute bertako ‘espartanoek’ hiriak bizi duen hondamendiaz mintzo direnean: “Welcome to Damascus”.

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Europak errefuxiatuak traizionatu ditu



Juan Mari Arregi

Eskuineko argazkian ikus daitekeen bezala, tenperatura baxuek eta Europa estali duen elurrak berriz azaleratu dute euren herrialdeetako gerra eta gosetik ihesi mundu berri baten bila datozen errefuxiatuen arazoa. Horrek guztiak garamatza salatzeraz Europar Batasuneko politiken porrota. EBk 2015eko irailean hartutako konpromisoak ez ditu bete. Italia eta Grezian blokeaturiko 160.000 errefuxiatu Batasuneko beste estatuetan birkokatzeari adostu zuten. Porrota erabatekoa izan da. Adibidez, Espainiako Estatuak 17.737 errefuxiatu hartu behar zituen, baina 898 besterik ez ditu hartu oraindik. Eta ardura ez da soilik PPren Gobernuarena: zer egiten dute oposizio-ko gainerako alderdiek eta zer egiten dugu guk, herritarrok?

Halako frakaso eta hutsegitearen aurrean, Euskal Herriko zenbait mugimendu eta jende elkartasan adibide izan dira, konponbide zehatzak praktikara eraman nahian. Euren bizitza arriskuan jarri dute Mikel Zuluagak eta Bego Huartek, euren furgonetan ezkutaturik Greziatik ateratzen saiatu direnean zortzi errefuxiatu; haietzako lana eta bizitokia aurkitu zuten Euskal Herrian. Miseria sortu, gerrak elikatu eta euren legea inposatzen dutenek atxilotu egin zituzten baina, “immigrazio ilegala sustatu eta errefuxiatuen segurtasuna arriskuan jarzea” egotzita.

Hori da zinizmoa eta lotsagabeke-ria! Hori traizioa politikari, diplomatiko eta EBko estatuena! Eta zer etsenplua herritarrek eman dutena, Mikel eta Begok ordezkaturik. Atxilotuak izan arren, desobediencia zibilarekin koherente izan eta berriz egingo dutela aldarrikatu dute, halako ekintzek “gizatiar egiten” gaituztela esanez. Gizatasun eta ardura hori da, preseski, politikari eta gobernuei falta zaiena; eta neurri batean baita guri ere, halako egoerak ez eragozteagatik.